

GUSTATZEN ZAITTESTUAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1. eta 2. blokeak

Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

ANIZTASUNA GUSTATZEN ZAIGU

Beharko dugun materiala

Lau koloretako pegatinak (horiak, gorriak, berdeak eta laranja).

Kaxatxo batean, lau marrazki sartuko ditugu: platano bat, marrubi bat, udare bat eta laranja bat. Fruta bakoitza aurreko koloreetako bakoitzari dagokio.

Garapena

- Jar daitezela haurrak borobilean, eta haur bakoitzari eskuan pegatina bat jarri. Egiaztatu badakitela zer kolore egokitu zaien.
- Esan haur bakoitzak kolore bat duela, eta ozen esaten duzunean «**(Kolorearen izena) gustatzen zait**», kolore hori duten guztiak altxatu egingo direla, eta borobilaren erdian jarri. Borobilaren erdian fruten kaxa egongo da.
- Orduan, kaxatik fruta bat atera, eta ikusi margotu daitekeen edo ez (borobilaren erdian dauden haurren kolorearekin bat badator bakarrik margotu ahal izango duzue).
- Esan hurrei «**Ostadarra gustatzen zait**» esaten duzunean, kolore guztiak altxatu beharko direla eta borobilaren erdian jarri beharko direla. Neska-mutil guztiak borobilaren erdian egotean, frutak banan-banan atera; kolore guztiak egongo direnez bertan, fruta guztiak margotu ahal izango dituzue.
- Hainbat txanda kolore bakar batekin egin, eta azken txandan esan «Ostadarra gustatzen zait».

Talde handian hausnartzeko

- Zenbat eta kolore gehiago eduki, orduan eta hobeto, gauza gehiago margotu ahal izango ditugulako, eta azkarrago, gainera.
- Gauza bera gertatzen da lana taldean egiten dugunean: zenbat eta pertsona gehiago aritu, orduan eta hobeto aterako zaigu lana, bakoitzak bere ekarpena egingo duelako. «Gustatzen zait» ipuina irakurri ondoren, gogorarazi jarduera honetan landutakoa, adibide hau bezalakoekin:

Oso goian dagoen zerbait hartu behar badugu, gelako altuenak arduratuko dira hori hartzeaz, baina zerbait hartzeko zulo txiki batetik sartu behar izanez gero, gelako baxuenak sartuko dira zulo txoan.



IRAKUR ETA KANTA DEZAGUN

Beharko dugun materiala

Gustatzen zait testua ([esteka](#)).

Me gustas tanto abestiaren [audioa](#) eta letra.

Aurretiazko oharra

Garrantzitsua da hau baino lehen «**Aniztasuna gustatzen zaigu**» jarduera egitea.

Garapena

1. fasea

- Irakurri ipuina, ilustrazioez lagunduta.
- Testua irakurri ondoren, esaldiak banan-banan komentatu eta azaldu, neska-mutil guztiek uler dezaten zer egoerei buruz ari diren.
- Testua denek ulertu dutenean, galdetu haietako inor testuko norbaitekin identifikatuta sentitzen den, edo ezagutzen duten adibide horietan jasotako kasurik.
- Hausnarketa osatzeko, gogorarazi «Aniztasuna gustatzen zaigu» jarduerarekin landutakoa.

2. fasea

- Jarri *Me gustas tanto* abestia, eta esan mezua adi entzuteko. Abestia entzuten duzuen bitartean, irudiak dauzkan posterra erabil dezakezue, lagungarri.
- Jarri ikasleak taldeka, eta eman talde bakoitzari abestiaren estrofa bat, buruz ikasteko. Koreografia txiki bat asma dezakezue, testuak esaten duena adierazteko; horrela, beharbada, errazago ikasiko dute buruz.
- Abestu abestia denek elkarrekin, taldeko lana dela azpimarratuz; izan ere, talde bakoitzak estrofa bat irakurriko du, eta talde guztiek hartu beharko dute parte, abestia oso-osorik kantatzeko.
- Ikasturtean zehar inoiz diskriminazio-egoerarik sortzen bada, abesti hau ekar dezakezue gogora, abestiaren mezua azpimarratzeko abagune egokia izanez gero.



ME GUSTAS TANTO ABESTIAREN LETRA

Me gustas tanto,
me gustas tanto,
me parece tu piel
de chocolate,
de chocolate,
yo te gusto también.

Me gustas tanto,
me gustas tanto,
hablas en francés,
y cuentas cuentos,
y cuentas cuentos,
en chino y japonés.

ERREPIKA

**Me gustas porque sin mirarme
puedes saber quién soy,
y sé que no tienes que escucharme
para oír mi voz.**

Me gustas tanto,
me gustas tanto,
vas con tu disfraz
como un pirata,
como un pirata,
conmigo a navegar.

ERREPIKA

Me gustas tanto
porque eres alto
y alcanzas mi jersey.
Yo mientras tanto,
desde aquí abajo,
al suelo llego bien.

Me gustas tanto,
me gustas tanto,
estrellas llevas hoy
entre tus dientes,
entre tus dientes
y un beso que te doy.



GUSTATZEN ZAIT



* Gustatzen zait **Anuar**, txokolatezkoa delako.



* Gustatzen zait **Tian**, bere hizkuntza irakasten didalako.



* Gustatzen zait **Gorka**, bere barruan altxor ikaragarri bat duen pirata bat delako.



* Gustatzen zait **Sandra**, eskuekin irakurtzen dakielako.



* Gustatzen zait **Valeria**, gorra den arren oso ondo aditzen nauelako.



* Gustatzen zait **Samuel**, beti uzten didalako bere aulkian esertzen.





* Gustatzen zait gelan altuera ezberdineko neska-mutilak egotea.



* Gustatzen zait **Elsa**, bere hortzek izarrek bezala egiten dutelako distira.



* Gustatzen zait gutako bakoitzak mundua bere modura ikustea.



* Gustatzen zait denok lortu ahal izatea gure ametsak.



* Gustatzen zait gelan kolore guztietako ileak izatea.

**Gustatzen zait denok DESBERDINAK izatea,
baina denok garrantzi BERBERA izatea.**

NI NAIZ

Beharko dugun materiala

Haur bakoitzaren argazki bat.

Koloretako paperak, A4 neurriko koloretako kartulinak eta kartulina handiak (haur bakoitzarentzat erdia).

Garapena

1. fasea

- Esan neska-mutilei beren argazki bat ekartzeko, gustatzen zaien bat.
- Jar daitezela borobil erdia eginez eserita, argazkiak eskuetan dauzkatela, denek ikusi ahal izateko moduan. Joan daitezela bakoitzaren ezaugarriak aipatzen. Denen artean, aipatu bakoitzaren ezaugarri fisikoak, kualitateak, gustuak, eta abar.

2. fasea

- Eser daitezela haurrak mahaiaren inguruan. Bakoitzak marko bat egingo du bere argazkirako.
- A4 kartulinetan koloretako paperak itsatsi behar dituzte, edo irudi geometrikoekin ertzak moztu, apaintzeko. Gero, argazkia erantsi, eta dena kartulina handiaren erdian itsatsi.
- Jarri kartulina guztiak ikasgelan ondo ikusteko moduko leku batean, horma-mosaiko bat osatuz.
- Hausnarketa egin haurrekin batera, honelako galderak eginez:
 - Ikusi duzuen bezala, denok ezberdinak gara.
 - Zer gertatuko litzateke denok berdinak bagina?
 - Ba al dakizue mundu osoan ez dagoela zuen berdin-berdina den inor? Gutako bakoitza berezia da, beraz.

3. fasea

- Esan hurrei familiaren eta lagunaren argazkiak ekartzeko. Bakoitzak 2. fasean egindako apaingarria hartuko du, eta bere argazkiaren inguruan itsatsiko ditu beste argazki horiek.
- Eser daitezela haurrak borobilean. Banaka, erdira aterako dira, eta ikaskideei erakutsiko diete nor diren maite duten pertsona horiek, zer egiten duten elkarrekin, zer egiten duten ongi pasatzeko, eta abar.
- Ikusten duzuen bezala, zuen familian bertan ere ezberdinak zarete. Zertan zarete ezberdinak? Maite al duzue elkar, ezberdinak izan arren? Zerbait elkarrekin egiten duzuenean, iruditzen zaizue zenbat eta pertsona ezberdin gehiago aritu, orduan eta dibertigarriagoa dela?
- Jarduera amaitutakoan, berriro zintzilikatu argazkiak. Neska edo mutilen batek ikasturtean zehar emozio negatiboren bat sentitzen duenean (jelosia, inbidia, haserrea, tristura...), bere argazkia erakuts diezaiokezue, ikus dezan zenbat jendek maite duen den bezala, nahiz eta berak batzuetan sentimendu positiboak izan ez.

